

# 13/24

*irizpena*

MERKASARETZA, Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen

**dekretu-proiektuari buruzkoa**

Bilbo, 2024ko azaroaren 25a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

**Irizpena 13/24**

---

## I.- AURREKARIAK

---

2024ko azaroaren 5ean Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“MERKASARETZA, Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hizpide dugun arauaren xedea, lehen artikuluan xedatuta dagoen bezala, MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzea da, merkataritza-banaketaren sektorearen erronka berriei aurre egiteko laguntza espezializatua emate aldera. Sarearen helburua prozesu koordinatuak sustatzea da, jarduketa-eremu bakoitzean saltokien lehiakortasuna hobetzen eta saltokiak etengabe aldatzen ari den ingurura egokitzen laguntzeko.

Kontseiluko Batzordeko kide guztiei berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia bana, proposamenak eta iritzia eman zitzaten eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2024ko azaroaren 19an Ekonomia Garapeneko Batzordea bildu zen eta hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen Proiektu hau sortu zuen. Ondoren, Kontseiluaren Osoko Bilkurara eraman zen eta azaroaren 25ean gehiengoz onetsi zuten.

## II.- EDUKIA

---

*“MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzen duen eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehazten duen dekretu-proiektuak”* zioen azalpena, bost kapitulutan banatutako hemeretzi artikulua, bi azken xedapen eta eranskin bat ditu.

Zioen azalpenean agertzen denez, 2030eko Merkataritza Estrategiak EAEko administrazio orokorrak merkataritzan dituen eskumenak garatzen eta betetzen dituenean jarduteko testuingurua ezartzen du eta helburuak, estrategiak eta jarduketak definitzen ditu.

Estrategiaren helburua merkataritza-politika berrituak martxan jartzea eta progresiboki garatzea da. Politika horiek, era berean, faktore hauek markatzen duten merkataritza-egoera berrira egokituta egon beharko dira: eraldaketa teknologiko sakonak, hiri-agenda berria, merkataritzaren eta zerbitzuen arteko mugak lausotu izana eta hazten eta etengabe aldatzen doan enpresa-lehiakortasunaren exijentziak (kontsumitzaile anitzei —balio, behar eta ohitura berriak dituzte eta horrek erosten dutenean eta erosteko moduan sakonki eragiten die— zerbitzu emateko).

Estrategian jasota dauden premisa batzuek (hala nola erakunde arteko gobernantza irekia, baliabide publikoak koordinatuta gobernatzea edo lankidetzak publiko-pribaturako modu berriak garatzearen premia) azpimarratzen dute beharrezkoa dela gobernantzak merkataritza-politika publikoak koordinatzea eta dinamizatzea errazten duen kalitate handiko laguntza teknikoko egitura ahalbidetzea.

Eusko Jaurlaritzako merkataritza-arloko zuzendaritza eskudunak iazko mendeko laurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera, Merkataritzako Bulego Teknikoen programa bat martxan izan du.

Ordutik ia hiru hamarkada igaro direnez, beharrezkoa da programa eraldatzea eta garatzea, modu horretan, legezko esparru berrira, merkataritza-sektoreko agenteen egungo egoerara eta trantsizio sozioekonomikoek, teknologikoek eta ingurumenekoek markatutako inguru aldakorretara egokitzeko. Horretarako, beharrezkoa da laguntza teknikoaren funtzionamendua eta edukia birformulatzea, hala, merkataritza-politiken ezarpena hobetu dadin.

Dekretu horren helburua MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzea eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehaztea da. Modu horretan, laguntza espezializatua emango da merkataritza-banaketaren sektorearen erronka berriei erantzuteko, eta jarduketa-eremu bakoitzeko saltokien lehiakortasuna hobetzen eta aldatzen ari den ingurura egokitzen lagunduko duten prozesuak sustatuko dira.

Merkataritzari doako laguntza teknikoa ematea proposatzen da. Laguntza hori merkataritza-banaketaren sektore osoari eta bere erakundeei zuzenduta egongo da eta genero, jasangarritasun eta eraldaketa digitaleko ikuspegiak izango ditu.

MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sareak **zerbitzu** batzuk izango ditu, eta horien artean azpimarratu behar dira merkataritza-informazioa eta -laguntza ematea eta merkataritza-jarduera dinamizatzea eta sustatzea. Aurreko guztia kalitate- eta profesionaltasun-irizpideak betez, koordinatuta, elkarrekin, eta behar bezala egituratuta egingo da. Hala, helburua merkataritza-sektorearen erresilientzia, lehiakortasuna eta jasangarritasuna sustatzen duten estrategiak definitzea izango da.

Xede horiekin, dekretu-proiektuak artikulua hauek garatzen ditu:

#### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

1. art. Xedea
2. art. Merkataritza Laguntzako Puntua -MLP-
3. art. MERKASARETZA euskal sarea
4. art. MERKASARETZA euskal sarean sartzea

#### **II. KAPITULUA. MERKASARETZA MERKATARITZA-LAGUNTZAKO PUNTUEN EUSKAL SAREAREN MAPA**

5. art. MERKASARETZA euskal sarearen mapa

#### **III. KAPITULUA. MERKASARETZA EUSKAL SAREAREN ZERBITZU-ZORROA**

6. art. Zerbitzu-zorroa
7. art. MLPren betebeharrak

#### **IV. KAPITULUA. MERKASARETZA EUSKAL SARERA ATXIKITZEKO PROZEDURA**

8. art. Atxikipen-deialdiak
9. art. Eskaerak
10. art. Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea

11. art. MERKASARETZA euskal sarera atxikitzeko eskaerak analizatzea eta ebaluatzea

12. art. Ebazpena

13. art. Lankidetzaren irizpideak

14. art. Izen-emateak

#### V. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

15. art. Merkataritza-arloko zuzendaritza eskudunaren betebeharrak

16. art. MERKASARETZA euskal sarearen irudi korporatiboa

17. art. Ez-betetzeak

18. art. Ikuskapena

19. art. Datu pertsonalen tratamendua

**ERANSKINA:** MERKASARETZA sarearen merkataritza-laguntzako puntuen mapa

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

“MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzen duen eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehazten duen dekretu-proiektuari” buruzko iritzia emateko eskatu digute. Bere helburua 90eko hamarkadatik aurrera martxan dauden Eusko Jaurlaritzaren Merkataritzako Bulego Teknikoen (MBT) programa eguneratzea da, modu horretan, EAEko merkataritza-sektorearen egungo egoerara egokitzeko.

Ia hiru hamarkada igaro dira MBTak sortu zirenetik. Garai hartan programa berritzailea izan zen eta EAEko txikizkako merkataritzaren ezagutza teknikoa hobetzen lagundu zuen. Hala ere, gaur egun merkataritza-sektorean gertatzen ari diren aldaketekin (zerbitzua geroz eta gehiago ari da digitalizatzen, kontsumo-ohitura berriak daude, jasangarritasunaren inguruko irizpide berritzaileak ezarri dira, mugikortasuna eta herrien eta hirien plangintza aldatu da, genero-ikuspegia merkataritza-sektorean txertatu da, etab.) eredu birformulatu beharra dago.

Aldeko iritzia dugu dekretu-proposamenaren inguruan. Izan ere, dirulaguntzen araubidea argitzen eta hobetzen du eta intereseko aldaketa batzuk sartzen ditu.

Alderdi egoki batzuk hauek dira:

- Arau berriarekin, bulegoen sarea merkataritza-jardueraren araudi-esparru berrira egokituko da eta zerbitzu espezializatuagoa eta kalitate gehiagokoa emateko aldaketak ezarriko dira Merkataritza Laguntzako Puntuak (MLP) sortuz. MBTen sistema kontratatutako pertsonarengan oinarritzen zen aholkularitza-bulego bat sortzeko, eta MLPen sistema erakunde batean oinarritzen da eta, bertan, laguntza espezializatu emateko langile prestatuak egongo dira. Eredu berri horrekin, erakunde bakoitzak ematen dituen zerbitzuen kalitatea, egonkortasuna eta espezializazioa indartu nahi dira.
- Testu berriarekin programaren betearazpen-epea luzatzen da (urtebetetik lau urtera) eta, horrela,

zerbitzu-prestazioa hobetzen lagunduko da. Orain arte, eta dirulaguntzen sistemaren bidez, MBTak urtebeterako sortzen ziren eta epe hori igarota, eskaera berria aurkeztu behar izaten zen. Sistema berriarekin, MLP bat lau urterako sortu ahalko da (hitzarmenek ere lau urte iraungo dute), eta denbora hori egokia da funtzionamenduari lotutako ezinbesteko alderdiak hobetzeko: Zerbitzuko lantaldea elkartzeaz gain, erakundeak zerbitzua egonkorragoa, profesionalagoa eta espezializatuagoa izateko lan egin ahal izango du.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, 15. artikuluko (Merkataritza-arloko zuzendaritza eskudunaren betebeharrak) “*dagokion merkataritza-laguntzailea kontratatzeko*” urteko finantzaketaren inguruko aipamena ez da egokia. Izan ere, aztertzen ari garen eredu-aldaketak plantillako langileen egonkortasuna ziurtatu behar du, betiere, lanpostua betetzeko eskakizunak betetzen badituzte.

- Beste alde batetik, enpresa-elkarteei Merkasaretza sarera sartzeko eskatzen zaizkien ordezkaritza- eta kapilaritate-baldintzek erraztu egingo dute zerbitzua erabiltzaile eta udalerrri gehiagotara zabald ahal izatea.
- Merkasaretza sarearen asmoa MLPen arteko integrazioa eta koordinazioa erraztea da. Horretarako, kontsultak, aholkularitzak eta kudeaketak errazago eta eraginkorago egin ahalko dira. Egitura berri horrekin, asmoa da saltoki bakoitzak, bere kokapena gorabehera, arreta- eta zerbitzu-maila berberak jaso ditzala eta, modu horretan, euskal merkataritza-sareak laguntza eta indarra eskuratuko ditu.

Beste alde batetik, aurkeztutako testuan hobetu beharreko kontu batzuk aipatu nahi ditugu:

- ✓ Aurretik esan dugun bezala, gure ustez positiboa da dirulaguntzen eredutik lankidetzahitzarmenen eredura aldatzea eta, testuinguru horretan, uste dugu dekretuaren zioen azalpenean argibide hobeak emateko esfortzua egin beharko litzatekeela, hala, herritarrek argi ulertu ditzaten aldaketa hori egitearen arrazoiak, eta ez bakarrik “legezko esparru berrira egokitzea” aipatzea.
- ✓ Aurrekoarekin lotuta, eta MBTen sarearen ibilbide luzea kontuan hartuz, formulazio berria oinarritzeko jarduketan balantzea azaldu beharko litzateke, detektatutako hobekuntza-alderdiei edo -tarteei erreparatuta.
- ✓ Azkenik, dekretu berriaren eragin ekonomikoari dagokionez, hizpide dugun testuan agertzen diren zifra orokorretatik haratago, gure ustez zenbaketa argi bat falta da (aurrekontuak ere kontuan hartuta), arau berriak ordezkatzen duen eredu-aldaketa baloratu ahal izateko.

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

### 1. art. Xedea

Txikizkako merkataritzako laguntza-sarea arautu nahi denez, arauaren xedea definitzen denean egokia litzateke kontsumitzaileak, ondasunen azken hartzaileak eta merkataritzak eskaintzen dituen zerbitzuak aipatzea.

Horregatik, artikuluko hori letra lodiz **nabarmendutako testuarekin** osatzea gomendatzen da:

*“Dekretu honen xedea MERKASARETZA Merkataritza Laguntzako Puntuak euskal sarea sortzea da,*

merkataritza-banaketaren sektorearen erronka berriei aurre egiteko laguntza espezializatua emate aldera. Sarearen helburua jarduketa-eremu bakoitzean saltokien lehiakortasuna hobetzen, **saltokiak kontsumitzaileen eskarietara egokitzen** eta etengabe aldatzen ari den ingurura egokitzen laguntzen duten prozesu koordinatuak sustatzea da.

#### 6. art. Zerbitzu-zorroa

MLPren zerbitzu-zorroaren zati moduan, kontsumoko arbitraje-sistemara atxikitzeko sustapena gehitzea gomendatzen da.

#### 7. art. MLPren betebeharrak

Artikulu horretako **6. apartatuan** MLPk merkataritza-laguntzaileari eskaini beharreko lan-espazioa arautzen da, modu horretan, bere lana egoki egin dezan.

Gure gomendioa da espazio horren baldintzen artean gehitzea ez dela oztopo arkitektonikorik egon behar.

## IV.- ONDORIOA

---

EAEko EGABek egokitzen jotzen du “*MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzen duen eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehazten duen dekretu-proiektua*” izapidetzea, kontsulta-organo honek eman dituen oharrekin.

Bilbon, 2024ko azaroaren 25an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria